



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2019ko OTSAILAREN 5ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2019ko otsailaren 5ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen dute: Uxue Etxebeste Eizagirre, Onintza Gorostidi Murua eta Xabier Mugika Letamendia

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
✓ 2018ko abenduaren 27an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **2019 ekitaldirako udal aurrekonturen espedientearen hasierako onespena, hala bada.**
5. **Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2019ko 1. Eta 2. Hiruhilabeteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
6. **Beste batzuk.**
7. **Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- 2018ko abenduaren 27ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

01/2019 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 8koa, Basalan Arrospide S.L.ri Herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

02/2019 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 9koa, E.A. andreari lanaldi erdiko kontratu bat egitea, ebazten duena.

03/2019 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 16koa, 2018 urteko bigarren goiheriotako ura tasaren udal errolda onartzea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

FONTANERIA ANTZIETA	314,60
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	24,35
CORREOS	14,14
OSCAR GALINDO	181,50
PAULO AZKUE	111,77
EDURNE BENGOA	186,42
ACSOL	320,76
EUSKALTEL	98,50
MECALUX	2.403,06
KEY LAN	81,00
GRUPO DELTA	409,56
HERRI OSTATUA	227,00
HERRI OSTATUA	120,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HERRI OSTATUA	352,15
LAU HAIZETARA	1.649,71
LAU HAIZETARA	11.270,60
ZUENTZAT ARTE ESKOLA	281,25
KUKU-LORE	15,95
ITZIAR SAENZ	309,00
KUKU-LORE	8,96
EBA ERKIZIA	1.791,94
ANTONIO ELOSEGI	59,53
TOLOMENDI	155,25
IMPORT-QUIMIA	389,20
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	221,45
BIDATEK	559,02
IZADI	152,94
MOVISTAR	169,54
REPSOL	54,26
ARGITU	161,23
ACSOL	107,44
ACSOL	47,50
ACSOL	155,65
ACSOL	41,91
ACSOL	205,91
ACSOL	237,87
ACSOL	48,57
ACSOL	44,94
ACSOL	103,08
IBERDROLA	42,34
ACSOL	108,23
ACSOL	245,04
MOVISTAR	74,76
NORTEGAS	226,68
NORTEGAS	58,52
NORTEGAS	306,08
JOYN MOBILIARIO	738,10
DESNOR	1.766,60
OBBTKN	1.897,40

ERABAKITZEN DUTE



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA.- Guztira **28.551,26** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2019 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUAREN ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2019 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Alkizako Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-Kontuhartzaileak 2019ko urtarrilaren 31an egindako txostenean dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Alkizako Udaleko 2019 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingoan onartzea 627.942,51 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

SARRERAK	625.951,71€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Zuzeneko Zergak	63.310,00
2. Kap. Zeharkako Zergak	15.000,00
3. Kap. Tasak eta bestelako zergak	56.715,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	332.685,00
5. Kap. Ondare Sarrerak	6.110,00
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak besterengan.	0,00
7. Kap. Kapital Transferentziak	152.131,71



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

8. Kap. Finantza aktikoak	0,00
9. Kap. Finantza Pasiboak	0,00

GASTUAK	625.951,71€
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Kap. Pertsonal gastuak	213.535,00
2. Kap. Gastuak ondas.arrunt.eta zerbitz.	170.070,00
3. Kap. Finantza gastuak	20,00
4. Kap. Transferentzi arruntak	88.449,51
B) KAPITAL-ERAGIKETAK	
6. Kap. Inbertsio errealak	153.877,20
7. Kap. Kapital Transferentziak	0,00
8. Kap. Finantza aktikoak	0,00
9. Kap. Finantza pasiboak	0,00

BIGARRENA.- 2019ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurso eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

BOSTGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2019KO 1. ETA 2. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2019 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 19.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Alkizako udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- Gizarte zerbitzuak: 14.500,00 euro
- Kultura: 4.500,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 19.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2019 ekitaldiko 1. eta 2. hiruhilabeteen sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko udal aurrekontuetako "421.230.00.01 eta 421.330.00.01" kontu sailaren kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

- Gizarte zerbitzuak: 14.500,00 euro
- Kultura: 4.500,00 euro

BIGARRENA.- 19.000,00 eurotako gastua onartzea.

SEIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten

ZAZPIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.